

Sarrera

Berriro ere hemen gara. 6 zenbakiz osatutako bideari amaiera eman genion 92aren hasierarekin batera, eta hona hemen bidearen beste txanpa bat.

AEDk dagoeneko hamarkada bat bete duela, batetik, eta euskara-elkarteei buruzko Jardunaldiak egingo direla urriaren 30 eta 31n, bestetik, aukera dugu berriro ere materiala itxuratu eta zuenganatzeko. Oraingo bidai honetarako beste lau zenbaki dira argitaratzekoak.

Horietako lehena, eskuartean duzuna, AEDri buruz dihardu. Gogoeta egin gura izan da 10 urte hauek aman dutenaz; aukera hartu nahi izan dugu atzera eta aurrera begiratzeko aldi berean, horrela jokatuz gauden unea hobeto ulertuko dugulakoan.

Ekar dezagun gogora lehenago ere, Jazten-en 3. zenbakian, eman izan dugula AEDren berri. Oraingo honetan orduko haren osagarri izango den zerbait eskaintzen ahalegindu gara. Orduan, elkartearen hasieraz, azpiegituraz, lanaren norabide teorikoaz, euskararen erabilera areagotzeko hitzarmenaz-eta, aritu ginen. Oraingoan, aurkibidean zehazten zaizkizun beste bost artikulua daude.

Horrenbeste egiteko begibistan dugula ez da ospakizunetan denbora gehiegi galtzeko tenorea. Edonola ere, beste leku batzuetan baino aurreratu-xeago egotearen kontzientziak animatu egin gaitu 10. urteurrena ospatzera badugulakoan zer erakutsi eta, batez ere, zer irakatsi.

Eta zer erakutsi eta zer irakatsi ezezik, zer ikusi eta zer ikasi ere ez zaigu falta. Ez horixe!

Neure aldetik, han eta hemen irakurritakoetatik, ondoren datozen aipuak erakutsi egin gura dizkizuet ea zuek ere ni beste asebetetzen zaituzten. Arrasaten euskaldun izateko eta jokatzeko gogoia ez da gurekin hasi. Gu aipatu kate-begi horietako bat gara. Ez gehiago eta ez gutxiago!

Horra pasarteak:

Gure lurra

(...) ;O...ez!... erakutsi zayegun gure semeai euskaraz mintzatzen eta euskaraz bizitzen; zer giñan, zer geran, zer nai degun. Etorkizun beltza bestela. Erakutsi zayegun lana, errespetoa, limosna, garbitasuna, elkarganako amorioa eta laguntza zer ta nolakoak izan bear duten euskaldunen artean; eta azkenik, ondo ikasiyaz elkartzea, batutzea edo uniya zenen bearra dan, jar zayegun ejenplu au: ekar-zazute bakoitzak arbazta bat onera, bildu ditzazute batera, eta oraiñ autsi eskuz sorta ori erditik. -Eziñ!- Askatu, artu banaka eta saya. -Orla bai. -Bada, ori bera gertako da zuekiñ: **elkartzen bazerate, etzaituzte autsiko: banakatu ezkerro, galduak zerate.**

Kondairak au erakusten digu, garratzki gure egunetan.

Ez dezagula aztu, euskaldunak.

Maite zagun gure lurra!

Antonio Arzac (Arrasateko garaiko idazkaria zena) 1896ko Uztailak 5.

Arrasateko euskaleguncan Eguskitza eus-

kaltzañak egindako itzaldia

Zorionez, gazte guziak eztute ori egin, ez. Gogoari dagozkan eginkizun eta ikasketak, benetan aundietsi ta aintzat artzen dituzten gazteak ere ba-dira: asabengandik datorzkigun izakera berezi, oitura on-garbi ta euskera zar-ederra galtzen eukusteak, atsekabe aundi, naigabe samiña ematen dien euskaldun zintzoak ba-dira aintziñako Arrasate ta oraiko Mondrago ontan ere. Politika gauzak aldebat utzi ta anai bezela elkar arturik, gaurko jai oyek gertu ta antolatu dituzte. Lenbizikoak eztira: 1896garren urteko Uztalan ere euskal-jayak andiro ospatu ziren emen. Orain berriz euskal-eguna egin eta ospatzen degu. Au dala-tá ¿zer esango ote-dizuet? (...)

1927ko irailak 4

Arrasateko itzaldia

Euskeltzaleak

(...) Arrasate'ko euskal-egunez, orain gauden areto ontan bertan, txiki ta aul, ume axial-gorri. "Euskaltzaleak" deritzan elkarte sortu zan. Gaur, iru urtezgero, Euskalerra osora egunero bere otsa zabaltzen du; ta ezniuteke gezurrik esan nai, laister Euskalerra'ko lagun-arterik ugarien eta indartsuena izango dala adieraziaz.

Zer egin zendutan orain iru urte jai bikain aiek gertutzeko? Nik esango dizuet. Erriko seme guziek, nornolako zan begiratzeka, nor nondik zetorren gogoan artu gabe, elkarri eskua eman ta etxe garbiko senide zintzoak bezela jokatu zenduten. Ta zuen elkartze ori zertarako izan zan?... Euskaldunen ezangugarri guziak goratzeko ta edertzeko: gure kristautasuna, gure oitura ta jolasak, gure euskera berdingabea goratzeko ta edertzeko. Itz batez: amari egun eder bat opa izan zenioten, ta amaren begiek egun artan Arrasate'n etzuten seme-alaba onik baizik ikusi.

Utzi dezaigun euskaldunok euskaldun izateari, urtu gaitean eta naasi inguruko erbestekin... ¿Besteek ere guk bezela jokatu lutekela uste aldezute?... ¿Ederki eman ere! ¿Gaur, beraz? ¿Mundu bazterretako erri txiki guziek gero ta areago beren burua zaintzen ta indartzen diarduten garaian? ¿Orain gu ezereztu, orain guk geren buruok ondatu, gizadia berdintzen asi dedin? Ori egitea ainbatsu litzake nik orain zuei esatea: "Jau-nak, munduan jende geitxo gatxegok, askoz obeto bizitze aal-giñenek bakantxeago izanda; beraz, nondik-bait asi bear da-ta, nere burua bota deza-dan leiotik beera...". ¿Zer esango zendukete? Badakit aurki ninduzetela Santa Ageda'n sartua. Ta ori egitea eskatzen diguten euskaldunak ote dira, bada, euskaldun zuurrenak, euskaldun burujantzienak, euskaldun gurenak? Bada, nik, (jaun oiek astotzat joko ba-naute ere), naiago det ibai txiki izan, baña ene urak neronek itsasora eramateko jabe; ta ez nere izena ta nere izana galdu, ibai aziago bati nere burua eman bearrez.

Lizardi

Sarrera hitzaldia Euskaltzaindian

Euskerearen bizitzia: esan bearrik eztala dirudi baiña bada: euskaltzaleok, euskerea maite dogula diñogunok, euskereari dagokon gauzeetatik gorengotzat, beñentzat, nagosijentzat, beronen bizitzia euki bear dogu. Beronen edestija, beronen zaartasuna, beronen edertasuna, beroneri buruzko geure eretxi-meretxijak eta enparau guztija, eztira ezer ere: bazterrera jaurti bear ditugu, euskereiaren bizitzia bera, laguntasun eske, oiuka, deika, eros-taka ikusten dogunean. (...)

¿Zeintzuk dira orrako bideok?

Lenengo eta beñen, ekin gogoz, bere osasunaren, bere bizijaren kalteko eragozpenok zeintzuk diran ezagututa eurok kendu, urrindu eta baztartzen; orretarako, maitetasunezko deijak egin, euskalerrijonen lau aldeetara; ta euskaldun bijotzoneko orori erakutsi, euskereiari eusteak, geure erri ta abenda zaar oni, zelako onura aundijak ekarri leikeozan; onura gogotarrak, arimatarrak atan-be, gaur-eguneon, gizonaren noberekortasun larregiko ta deangeak, errijok galdu-mendirik izugarrijenera jausten ez isteko bear-bearreko diran onurak.

Onetarako erabagi egoki-egokiz, imini zenduen euskaltzain jakitunok, zeuek eraldutako euskaltzaindijaren sortarauetan. Euskera-jagolea deritxon saila. Goiko jaunak lagundu bekijoe, sail ori euren ardurapean artu dabeen euskaltzain lagunai; euron lana da, gure ustez, euskerearen bizitzia sendotzeko ta goratzeko indarrak geijen dabena-ta.

Euskeraonen bizija zaintzeko gure astezko bigarren bideori, izkuntzalari jakituneen irakatsijai jaramon egitea da. (...)

Seber Altube (1920ko abenduaren 28an)

(...) Egia esan, euskera il zorian dago. Ori ezin ukatu. Ala ere bator gaztedi berria, euskalmistika berriz yentzizta berotua. Illabete otan barnean ibilli naiz: ni emen eta *alde guzietan sorotzat naukate, batez ere euskaltzaletasunean itsu-itsuan ari naizelako. Zorionez ni bezelako txoroak bada-toz atzetik: orixe bear degu euskera bizierazteko. Elitaz darabilte mundua: gizon ikasiek, ez kaituek: ez txilbortzaleek: arkitu izan ditut barnean.*

Beraz, orain arte esanak alde batetik aitorzen dizut euskera il zorian dagola: baña goizean esan dizudana, berriz esaten dizut: Gure eskuetan dago euskeraren il-bearra edo bizi-bearra. Erabat gure eskuetan. Errepublikan aldian bertan, noiz izan genun orrelako batzarre orokorra, euskeraz? nere ustez beñepin dakidanez, ni beti erbestean ibillia bainaiz.

Au esan dezu: metodoak ustelak izan ditugula; nere ustean ez, bideak ez dira izan ustelak; gogoak ditugu ustelak; ori bai; gogoak ditugu ustelak. (...)

Jokin Zaitegi

(1956ko I. Euskal Mundu Biltzarrean)